

noaua

**“Herriko saltokiek
gure bultzada behar dute”**

**Aginagako jaiei buruzko
xehetasunak, gehigarri
berezi batean**

Santueneko jaiak, iruditari

Nagore Arruti arraunlaria:

**“Hau izan da
nire azken urtea”**





kanpokaldeko
dekorazioa!



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industria serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



LASER DIODO IRAUNKORRA
LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko eskaintza paregabea eskaintzen dizugu URRIAN eta AZAROAN:

**URRITIK
AURRERA
LASER GARAIA!**
eskatu
hitzordua!

INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Albiste iruditan

Herrian bizi, herrian erosi

Pako Agudok eta Ixabel Agirresarobek mimika itxurako antzezlan bat eskaini zuten aurreko ostiralean, Marije dendako erakusleihoan. Ekimen honen bitartez, erosketak herrian bertan egiteak duen garrantzia ohartarazi nahi izan zuten Udalak eta Hurbilago elkarteak. Eskualdeko gainontzeko herrietan ere ekitaldiak egin zituzten, “Nire aukera, Beterri-Buruntza” lelopean.

Ostiraleko ekitaldiak helburu nagusi bat zuen: “erosketak bertako dendetan egitea zein garrantzitsua den azpimarratzea eta dendei esker herrian garatzen den bizitza erakustea”.

Marije dendan egin zen ekitaldi nagusia baina goizean goizetik karteletz josiak agertu ziren saltokiak. “Nire aukera, Usurbil” edota “Merkataritzarik gabe herriarik ez” mezuak irakurri zitezkeen.



Pako Agudok eta Ixabel Agirresarobek ezohiko agertokia aukeratu zuten: Marije denda.

Laburrean

Artisautza Azokarako izen ematea ixtear

Aitzaga Elkartek azaroaren 1erako frontoian antolatzen ari den azokan postua jarri nahi dutenek irailaren 30era arteko epea dute izen emateko. Email honetan egin behar da eskaria: artisautzaazoka@gmail.com

Urriaren 5ean, organo kontzertua

Willibald Guggenmos organista alemaniarren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu Parrokiaren, Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Urriaren 5ean izango da, larunbatez; iluntzeko 20:00etan Salbatore Elizan.

Larunbat eguerdian, Kantu Taldearen saioa

Aurrerantzean, astelehenero bilduko dira ikastarorako, 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan. Ikasturte berriko lehen kantu-jira hilaren 28an egingo dute, 12:30ean Mikel Laboa plazatik abiatuta. Kantu-liburuxkarekin bertaratu.

noa

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noa.eus // www.noa.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noa.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noa.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Luis Aranalde

Euskaldun unibertsala

96 urterekin zendu da Kanbon Roger Etxegarai kardinala. Ipar Euskal Herriko Ezpeletan (“piper gorriaren hiriburua” deitzen zion bere jaioterriari) etorri zen mundu honetara. Garai hartako apaizgai guztiek bezala, humanitateak estudiantzera Ustaritzera joan zen eta goi mailako ikasketak berriz, Baionako seminarioan burutu zituen. Apaiztu ondoren Erromako Unibertsitatean Lizentziatura lortu zuen Teologian eta Zuzenbide Kanonikoan.

1969an Parisko Gotzain laguntzaile izendatua izan zen eta urtebete geroago Marseillako Artzapezpiku. 1979an kardinal izendatu zuen Joan Paulo II.ak. Aita Santu izateko kinielatan ere egon zen, baina 80 urteak gaudituta zituela, ez zuen parte hartu Benedikto XVI.a izendatu zuten konklabean. 2014an Frantziako Gurutze Handiaren domina eman zioten. Gurutze Handia Ohorezko Legioaren mailarik handienekoa da Frantzian.

Kardinal izendatu ondoren, Vatikanoko munduan zehar izan zituen arazo diplomati-

koetan beti agertzen zen Etxegarai. Ez zitzaion batere gusatzatzen diplomatiko hitza bere kasuan. “Misio edo eginkizun humanitarioetan” jarduten zela esaten zuen; bere lana: “elkar joka ibiltzen diren jendeak hitzetara edo elkarriketara eramatea zen”. Norbaitek deitu zion “elkarriketaren artisaua”.

Ibilbide diplomatiko horietan besteak beste, Palestinan izan zen; “bakea ez da biharko”, esan zuen nahiko ezkor hango giroa ikusita. Iraken ez zuen lortu Saddam Husseinek atzera egitea, nahiz eta ahalegin guztiak egin zituen. Agian bere bizitzako arrakastarik handiena Kuban lortu zuen. Joan Paulo II.aren topaketa Fidel Castrokekin Etxegaraik prestatu zuen: nora joan, norekin batzartu, zer esan jendaurreko ekitaldi bakoitzean. Dena josten jardun zuen eta baita lortu ere bi lider historikoen arteko elkartzeara. Euskal Herriko gatazkan bake bideak aurkitzen saiatu zen, baina bere rola oso diskretua izan zen, dendostekoa nolabait esateko. Burutu zituen adiskidetze lan horientatik “bake eta elkarriketa gizon” deitu dio

Frantzisko Aita Santuak.

Kristautasun ireki baten aldeko apustua egin zuen beti. Vatikanoko II.aren hatsak markatu zuen betirako; Kontzilioan aditu ofizial gisa aritu zen. “Ecclesia semper reformanda” esaldia erabiltzen zuen askotan, alegia, elizak berritzen joan behar duela beti. Halere, “elizak maitatua izan behar du, erreformatua baino gehiago” zioen askotan.

Bere haurtzaroak markatuta utzi zuela zioen, zentzu baikorrean noski; “Choko Maïtia” baserrian ikasi zuen elkar laguntzea, partekatzea eta zein garrantzitsua zen herritarren arteko batasuna. Gehien aipatzen zuena zen, txerria hil ondoren nola banatzen zituzten auzokoen artean odolkiak eta beste zenbait txerriki. Bere amak zerrenda luzea egiten omen zuen, urteko luzatzen zena gainera eta Roger mutil koskorra han joaten zen baserriz baserri odolkiak elkarbanatzen. “Ekintza hauek moldeatu zuten nire haurtzaro osoa, hauek bihurtu zuten Battittaren semea ebanjelioko baloreetan sendo oinarritutako kristaua”, adierazi zuen “La

croix” aldizkarian. Zer ikusi, hura ikasi esaten dugu eta egia da Etxegaraien kasuan. Tradizio hau Gazteluko baserrietan ere bazen; zenbat aldiz banatu ote nituen neuk inguruko etxeetan gure amak zesto batean txukuntxukun bilduta jartzen zizkigun odolkiak eta beste zenbait txerri zati. “Ez dago benetako giza aurrerapenik herrien arteko elkartasunik gabe”, esan Etxegaraik eta arrazoi zuen.

Dozena erdiren bat liburu idatzi zituen euskal unibertsal honek, baina ospetsuena “j’ai senti battre le coeur du monde” (munduko bihotzaren taupadak entzun ditut); bere oroitzapenak dira Bernard Lecomte kazetariarekin egindako elkarriketa batean jasoak. Dokumentu paregabe honetan ezagutu dezakegu barrendik egungo Elizaren historia espirituala, politikoa eta diplomatikoa.

Etxegaraien “enpatia, gertutasuna eta munduko bakearen alde egin zuen lan nekaezina” aipatu zuen Urkullu lehndakariak. Goian bego.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

“Atzoko eta gaurko gudariak” gogoan izango dituzte ostiral honetan Mikel Laboa plazan

1 975eko irailaren 27an, Francoren erregimenak Txiki eta Otaegi erail zituen FRAPeko beste hiru kiderekin batera. Urteurrenean, ekitaldi ugari egin ohi dira herri askotan. Usurbilgoa Mikel Laboa plazan egingo da, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Deitzaileek aditzera eman dutenez, ekitaldia xumea izango da; funtsean, “atzoko eta gaurko gudariak” ekarriko dituzte gogora. “Atzoko gudariak Euzkadi defendatzeko jo zuten armatar. Eusko Jaurlaritzaren agintepean, Eusko Gudarostea osatu zuten. Hil ziren lubakietan, hil zituzten fusilatuta eta hil zituzten gerra amaitu ondoren ere. Atzoko gudariak izan



Ekitaldia Mikel Laboa plazan egingo da arratsaldeko 19:00etan hasita.

ziren”.

Frankismoa indarrean zela, “Euskadi askatzeko altxatu ziren beste euskal herritar batzuk. Zazpi herrialdeak bere baitan hartuko zituen herri

euskaldun eta sozialista bat eraikitzeko asmoa proposatu zioten herriari. Gaurko gudariak dira”. Ostiral honetako ekitaldia deitu dutenen esanetan, “espexetean bahituta dauzka-

te asko oraindik”.

Azken hamarkadetako borroka deuseztapenetik bizira ekarri gaituela diote. “Hilda zegoena bizirik dago. Kontraesan eta ezintasun handiekin. Baina bizirik”. Ildo horretan, “belaunaldi berriei dagokie gaur egungo Euskal Herrira ekarri gaituen bidean aurrera egitea, euskal herritar guztiak berdintasunean bizitzeko Euskal Herri euskaldun, sozialista eta feminista erdiesteko bidean urrats berriak eginez. Borrokaren pausoa da bidea”.

Ekitaldi laburra

Ostiral honetan, hilak 27, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Mikel Laboa plazan.

Ika-mika

Irrotasuna eta ardura

Estatuko egoera politikoa gertatzen ari denaren aurrean, gure kezka azaldu nahi dugu, batetik, Gobernuaren osaketaren kudeaketatik, eta, bestetik, gure urduritasuna adierazi hauteskunde berriak deitzaiek sor ditzakeen ondorio kaltegarrietatik pentsio publikoan etorkizunean.

Egoera horren aurrean zera adierazi nahi dugu:

Argi dago, inolako zalantzarik gabe, gobernu aurrerakoi eta soziala eratzeke zailtasunen atzean badaudela desberdintasun politikoetatik haragoko arazoak. Bistan dago, hementxo eta Europako finantza munduko agintarien esku-sartzea. Egunero ari dira muturra sartzen gobernuaren eskumenetan, pentsio pribatuak sustatuz negozioa egiteko. Pentsio Publikoaren Sistemaren, zerbitzu publikoetan eta Ongizate Estatuan murrizketak egiteko eskatzen

dituzten berberak dira. Egoera hau onartezina da. Herritarren gehiengoaren eskubideetan aurrera egiteko, hautetsontziek gobernu aurreko eta sozialaren alde hitz egin zuten.

Milaka eta milaka pentsiodunen egoeraren aurrean kezkatutik gaude, gehiengoan emakumeak, hilaren bukaerara heltzeko zailtasunak baitituzte, ezin baitute argindarraren faktura ordaindu, ezta gasa edo behar dituzten sendagai guztiak ere. Larrialdi egoeran gaude!

Gizarte Segurantzaren finantzaketa eta Publikoaren Publikoaren Sistemaren etorkizuna bermatuko duen legedia exijitzen dugu; urteroko KPIaren igoera automatikoaren legezko bermea; bizitza duina bermatuko duen 1080 euroko gutxieneko pentsioa; pentsioen erreforma indargabetzea, eta batez ere jasagarritasun faktorea; gizonen eta emakumeen arteko

soldata-arrakala bukatzea.

Soldaten, lan baldintzen egoeraz eta negoziazio kolektiboaz arduratzen da Pentsiodunen Mugimendua. Lanbide arteko Gutxieneko Soldata duina defendatzen dugu Europako Gutun Sozialak esaten duen moduan. Halaber, izugarri zabaltzen ari den prekarietatea alboratzeko soldata eta enplegu duinak, horrela beste zenbait onuren artean gizarte-segurantzaren kotizazioak eta diru-sarrerak hobetuz.

Estatuaren gobernarritasunerako behar-beharrezkoa da programa aurrerakoa defendatuko duten indar politikoen arteko akordioa eta Pentsioen Sistema Publikoak dituen beharrak konpontzeko dituen legeak abian jartzea, pentsiodunen, langileen, langabetuen eta oro har gizartearen ziurgabetasunarekin bukatu ahal izateko.

Erabakigarriak diren egun

hauetan indar politikoei esan nahi diegu arduraz jokatzeko mesfidantzak alde batera utzi eta milioika pentsiodunen aldarrikapenak entzun eta haien arazoak konpontzeko. Jendea bazterrean uzteko ez dago balio duen arazo politikorik, bai ordea, agintari ekonomiko eta finantzarioak isilarazteko.

Pentsiodunok kalean eta herriko plazetan jarraituko dugu borrokan, momentuak eskatzen duelako eta horrela defendatzen ditugulako gure aldarrikapenak. Azken finean, gobernuak jakin dezala, edozein delarik ere, pentsiodunen mugimenduak dioena: gobernatzen duenak gobernatu, pentsioak defendatu.

Pentsiodunen mugimendua

*Irailaren 30ean manifestazioa deitu dute Gipuzkoako pentsiodunek 12:00etan Donostiako Alderdi Ederetik.

Artisau azokarako izen ematea, amaitzear

Azaroaren 1ean, urtero legez, artisau azoka egingo da frontoian. Izen ematea jada zabalik da posturen bat jarri nahi duen ororentzat. Parte hartzeko baldintza bakarra artisaua izatea da eta salgai jarri nahi diren produktu guztiak eskuz egin-dakoak izatea. Antolatzaileen hitzetan, euskaraz aritzea garrantzitsua izango da eta herrikoek lehentasuna izango dute.

“Urtero egoten da herritarren bat partehartzaileen artean. Batzuk behin bakarrik aurkeztu dira; beste batzuek errepikatu izan dute”, jakinarazi dute antolatzaileek. Denak kontuan hartuta, esan daiteke “artisau artista” ugari dagoela Usurbilen. Produktu anitzetako azoka egitea da antolatzaileen helburua. Izen emateko epea zabalik da eta parte hartu nahi dutenek artisautzaazoka@gmail.com helbidera idatzi behar dute.



Azaroaren 1ean ospatuko da azoka baina aurretik eman behar da izena.

ARTISAU AZOKA

“Produktu anitzetako azoka egitea da antolatzaileen helburua”

Aukeraketa bat egiten da

Urtetik urtera jende gehiagok ematen du izena parte hartzeko. Asko dira kanpoan geratzen direnak, frontoian leku mugatua baitago. Aukeraketa bat egin behar izaten da. Ez da lan erraza izaten; saiatzen dira pro-

duktu ezberdinen aukeraketa egiten, urtero azoka berdina ez izateko eta errepikakorra izan ez dadin.

24. edizioa

Azoka orain dela 24 urte hasi zen ospatzen, Aitzaga kultur elkarteak sortu zenetik. Urteroko hitzordu seinalatua da azaroaren 1eko zita frontoian. Datorren urtea 25. urteurrena izango da eta baliteke zerbait berezia egitea.

Jabetza eskolako ikastaro berriak

Gogoan izan, Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak ondoko ahaldundze ikastarook antolatu ditu. Abiatzear dira:

Biodantza ikastaroa:

Urriaren 7tik abenduaren 16ra astelehenetan, 15:30-17:00, Bake Epaitegi atzeko lokalean (Nagusia 4).

■ Irakaslea: Elen Kortaxarena Gesalaga.

■ Izen emateko epea: urriak 5.

Asertibotasuna eta ahaldundzea:

“Komunikazio trebetasunak, harreman parekideak eta gatazken konponbidea”.

■ Urriaren 3tik abenduaren

12ra ostegunetan, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean (Nagusia 4).

■ Irakaslea: Pepa Bojó (gaztelania).

■ Izen emateko epea: urriak 1.

Informazio gehiago:

943 377 110

parekidetasuna1@usurbil.eus

Euskaltegiko ikasturtea urriaren 1ean hasiko da

Urriaren sartzearrekin batera abiatuko du Etumeta AEK euskaltegiak, 2019-20 ikasturte berria. Gogoan izan ordea, matrikulazio epeak oraindik zabalik segitzen du astelehenetik ostiralera ordutegi honetan: 11:00-13:00/18:00-20:00.

Maila guztietako ikastaroak (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak), motibaziorako jarduerak, autoikaskuntza metodoa, online zerbitzua... eskaintza zabala aurtan ere euskaltegian.

Informazio gehiago:

Nagusia, 43

607 609 379

usurbil@ae.eus

ae.eus

munterri.blogspot.com.es

KzGuneko hitzorduek

Irailaren 16:00-20:00 artean irekiko dute Kzgunea. Urriaren 1etik aurrera goizez, 9:00-13:00 artean.

■ Irailak 23-25, 18:00-20:00 “Zure bidaia planifikatu”.

■ Irailak 30, 16:00-18:00 “Musika aplikazioak zure Smartphonean”.

■ Urriak 1, 9:00-11:00 “Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi”.

Informazio gehiago:

tutor.usurbil@kzgunea.net

943 023 684

Nagusia, 37.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaia.eus

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

“Gure bultzada behar dute”

Hurbilagok fideltasuna saritu nahi du eta horretarako jolas bat proposatu digute azken hilabeteotan. Hurbilagok kaleraturiko eskuorria jaso eta elkarteko denetarikoa eskaintza duten saltokietan 10 euroko erosketa bakoitzeko jasotako pegatinekin aipatu eskuorria osatzea. Ahalik eta lasterren amaitzen zuten lehen bost lagunek 100 euro irabazi dituzte. Hortik aurrera eskuorria osatu dutenen artean zozketa egin zuen aurreko astean Hurbilagok. Ondoko irudian duzue irabazlea, Maisabel Balerdi Izagirre. Zozketa honi esker, herriko dendetan xahutzeko 500 euro irabazi ditu!

Pozik da jaso berri duen sariarekin. “Oso gustura, eguneroko ez duzu halako oparirik izaten”, adierazi dio Balerdik NOAUA!ri. Jolas modukoa zen Hurbilagok proposatzen zena. Tokiko merkataritzaren bezeroen fideltasuna jarri nahi izan du jokoan. Herri bizia izateko, tokiko saltokien jarduna bultzatzea, norbera bizi den herrian erosketak egitea bultzatzea. Maisabel Balerdik bezala. Erosketak Usurbilen egiteko ohitura du. “Zer gutxiago ezta?”, adierazi dio aldizkari honi.

Hurbilagoren ekimeneko eskuorria osatzeko, ezinbestekoa zen denetarikoa saltokietan



Hurbilagoko ordezkarien eskutik jaso zuen 500 euroko saria Maisabel Balerdik.

MAISABEL BALERDI

500 euro irabazi ditu Hurbilagoren zozketan. “Denda txikiek geroz eta egoera zailagoa dute. Gure laguntza behar dute”

tan erosketak egitea. Ariketa erraza egin ote zaion galdetu diogu. “3 aste aski izan ditut. Egia esanda, laguntza txiki bat izan dut”. Adierazi digunez, denda mota batzuetan erosketak egiteko ohitura handiagoa du besteetan baino. “Baina azkenean betetzea lortu dut”. Norbera bizi den herrian erosketak egiteak duen garrantziaz galdetu diogu baita, herriko komertzioen egoera nola ikusten duen. “Gure laguntza behar dute. Denda txikiek geroz eta egoera zailagoa dute, gure bultzada behar dute”, nabarmendu du.

Fideltasunak saria dakar

Hurbilago Elkartek uda partean hasitako kanpainak segida izango du udazken honetan. Orain arte bezala, berriz ere eskuorriak banatzen jarraituko du ostalari eta merkatarien erosketak egiten dituzten bezeroen artean. 10 euroko erosketa bakoitzeko pegatina bat jasoko du bezeroak. Denetarikoa saltokietan erosketak egin eta eskuorria pegatinez azkarren osatzen duten lehen bost bezeroek 100 euroko sari bana irabaziko dute!

Orain arteko sarituak

500 euroko sariaren zozketa: Maisabel Balerdi Izagirre.

100 euroko saria:

Pepita Arrillaga Martikorena, Mari Jose Uribe, Ana Balerdi, Mertxe Gomendio, Eli Eizagirre.

Orbeldikoen

ikastaroak abiatzear

Oinarrizko euskal dantzak, dantza hastapenak, erromeri taldea, dantza garaikidea, euskal dantzen taldea, haur eta gazte txoenak...

Ikastarootan izena eman edo argibide gehiagorako: orbeldi.udt@gmail.com

Oroimen ikastaroa eta Esperientzia Eskola

55 urtetik gorako herritarrei zuzendua, asteartero bilduko dira, 16:00-18:00 artean Artzabal. Lahar elkargoak eta Udalak bestalde, memoria lantzeko ikastaroa antolatu dute. Informazio gehiago: Gizarte Zerbitzuetan (943377110).

Udajolaseko argazkiak eta galdutako arropa

Gurasoontzako oharra; ostiral hau, irailaren 27a baino lehen etorri NOAUA!ra, arropa nahiz argazkien bila.

Argazki bilduma jaso nahi duenak, zehaztu ditzala gazte txoaren izen abizenak eta zer mailatan dagoen.

Urriaren 12an,

1979ko kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa izan eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

Urriaren 19an, 1955eko kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute. Añana Gatzaga bisitatu, Nerbioi saltoa ikustatu eta Urduñan bazkaldu. Aurrekontua, 65 euro inguru. Izena eman iraila bukatzerako, erreserbak garaiz egiteko. Maribi (675 006445), Patxi (615760458). Edo emailaz: 1955usurbil@gmail.com

Urriaren 26an, 1952ko kinto bazkaria

1952an jaiotakoak urriaren 26an larunbata Saizarren bilduko dira bazkaritarako. Izen emateko epea urriaren 19ra arte dago irekita: 620516715 (Javier).

Urriaren 26an, 1946an jaiotakoak bazkaria

Urriaren 26an bilduko dira Antxeta jatetxean. Bertaratu nahi duenak aurrez eman dezala izena, 943 36 34 48 (Laurok) telefono zenbakira deituta, urriaren 20a baino lehen.

1969an jaiotakoak,

urriaren 26an Atxegan

“Bazkalostean, musika eta giro ona izango ditugu”, iragarri dute. Aurten 50 urte beteko dituztenen bilkurarako izen ematea aurrez bideratu beharko da, urriaren 18a baino lehen 50 euroko ordainketa eginda: 3008 0259 17 40382 18121 (Rural Kutxa).

Azken ostirala Orion, Xua Gurasoekin Etxera plataformarekin

Aurreko astekarian ohartarazi genizuen moduan, ez da euskal presoek eskubideen aldeko elkarretaratzerik izango ostiral honetan, irailaren 27an Usurbilen. Orion egingo duten hileroko azken ostiraletako elkarretaratzera joatera deitu du Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. Hitzordua, hilaren 27an 20:00etan Orioko plazan.

Mobilizazio berezia izango da; elkarretaratzearekin batera, “Xua Gurasoekin Etxera” herri plataformak sinadura bilketa eta abesti bereziaren aurkezpena iragarri baititu. “Bertan izango dira Xuaren aitona-amonak, senideak eta ekimen hau martxan jarri duten Orio, Usurbil eta Zarautzeko lagunak”, iragarri dute herri bilgunetik. Gogoan izan, aipatu herri plataforma ekainean aurkeztu zuten Askatasuna plazan. 2017ko urtarilean jaio zenez geroztik, guraso Olatz Lasagabaster eta Patxi Urangarekin gugandik 600 kilometrora Valentziako Picassenteko kartzelari bizi den



Sinadura bilketa eta abesti berezia aurkeztuko dute ostiralean Orion.

HERRI PLATAFORMA, KEZKATUTA

“Hiru urteko umetxo bati gurasoekin egoteko eskubidea kenduko zaio”

Xuak espetxetik irten eta Euskal Herrira etorri beharko du datorren urtarilean, hiru urte betetzean. “Gurasoek preso jarraituko dute, banaketa benetan gogorra izango da. Hiru urteko umetxo bati gurasoekin egoteko eskubidea kenduko zaio”, gogorazti digute Xua

Gurasoekin Etxera plataformatik.

Kalean behar zuten

Gurasoek 12 urteko espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak izanik, Espainiako legediaren arabera kalean behar zuten jada. Ekainean 10 urte bete zituzten espetxean. Aipatu herri plataformaren izenak dioen bezala, Xua gurasoekin batera etxera ekartzearen alde lan egiteko sortua da Usurbil, Zarautz eta Orioko lagunek osaturiko bilgunea.

Ekainean egin zuten aur-

kezpenean hainbat ekimen iragarri zituzten udazken honetarako; tartean, mozio aurkezpenak Usurbil eta Orioko Udaletan, udaz geroztik martxan duten arropa salmenta, Usurbil eta Orioko irudidun postalen bidalketa, edota irailaren 27rako iragarria dagoen sinadura bilketa eta kanta bereziaren aurkezpena. “Kantua uda honetan prestatua eta grabatua izan da Orioko Ama-soian baserrian, Orio, Usurbil eta Zarautzeko musikari eta artisten laguntzarekin. Koreografia ere badu kantuak, herriko dantzariak prestatutakoa. Borondatezko lan itzelaren emaitza izan da dena”, ohartarazi dute Xua Gurasoekin Etxera plataformatik.

Kantu aurkezpena eta sinadura bilketa

Kantua aurkeztu eta sinadura bilketa kanpaina abiaraziko dute ostiralean Orion. “Nahi duen orok izango du aukera, paperean zein digitalean, “Xua gurasoekin etxera!” ekimenaren alde sinatzeko”.

Udalbatzaren osoko bilkura, aurrerantzean ostegunez

Legealdi hasieran udal arautegian eginiko aldaketa behin betiko onartu ostean, aurrerantzean hileroko azken ostegunetan

izango dira plenoak. Datorrena irailaren 26an 18:00etan udaletxeko aretoan. Dekretu ezberdinen berri ematearekin

batera zenbait aldaketa ahotan hartu eta bozkatuko dituzte udal ordezkariak: plantilla organikoaren eta lanpostuen

zerrendaren aldaketak; Atsotakarako espazio publikoaren antolamendu xehatuaren hasierako aldaketa.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA


· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



2019 San praixku

gehigarri berezia



Aginagako
eskolako ikasle eta
irakasleek jai
zoriontsuak opa
dizkizuegu!





·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK
·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



ONDO PASA
SAN
PRAIXKUETAN!

**sekaña
ERRETEGIA**

AGINAGA • © 943 362 773 - 667 694 769



URDAIRA

Sagardotegia

ESKATU SAGARDOA!
ONDO PASA JAIETAN!

Aginaga 943 37 26 91

Aginagararak, lehia bizian

Desafiorako tarte zabalak izango da abiatzear dituzten Aginagako jaiotan. Ariztitxo pilotalekua aginagarren arteko lehiaren lekuko izango da. Bi aginagar taldeek herri kirolen bueltan indarrak neurtuko dituzte San Praixku egunez. Eta gero toka txapelketa herrikoia. Mus txapelketak ere ez du hutsik egingo.

Umeen eguna, urriaren 11n

Adin tarte guztientzako jolasak prestatu ditu Jai Batzordeak, urriaren 11n ospatuko duten umeen festa egun handirako. Gogotik gozatuko dute jolas, bazkari, puzgarri eta txokolate jan ederraren bueltan. Belau-naldi arteko loturak sendotzeko ere baliatuko dute Haurren Eguna.

Eskuzabal etorriko omen dira jubilatua festetara. Arrate tabernatik bertatik opariak jaurtitzekoak dira



Urriaren 4an, San Praixku egunez neurtuko dituzte indarrak.

plazara etxeko txikienei, hila- ren 11n. Ezustekoon artean, jaki goxo askoak sukaldatuko dituzte patata tortila txapel- ketako parte hartzaileek.

Tiraxinas lehiaketa

Azkenik, aipatu, iaz arrakas- tatsu estreinatu zuten Eliza Zaharreko frontoian gazte eta helduen parte hartzea erakarri

zuen Tiraxinas Lehiaketa. Aurtengo San Praixkuen amaieran bigarren edizioa! Eta partxis lehiaketa txikienentzat baita jaiotan.

Estropaden itzulera

Iaz, 2017an inguruotan grabatu eta Donostiako Zinemaldian estreinatu berri zen "Oreina" filmaren estreina-ldia tarteko, erria izan zuten arreta gune nagusietakoa Aginagako jaiak. Aurten berriz Oria izango da festetako protagonistetako bat, oso bes- telako arrazoiengatik. Erriko ur azala harrotuko duten estropadak bueltan datoz Aginagara!

Azkenekoak duela lau urte, 2015ean ospatu ziren. Orduko hartan bezala, oraingoan ere hamargarren ediziora helduko den gizonen tra-



Urriaren 12an jokatu da, 15:30ean hasita.

nerilla txapelketa eta emakumezkoen laugarrena jokatu dira urriaren 12ko bazkalos-

tean, 15:30ean hasita. Gizonen lehiaketa, 15:30ean hasita. Gizonen lehiaketa, 15:30ean hasita. Gizonen lehiaketa, 15:30ean hasita.

Eta haiekin bi txapelketetan, besteak beste, Donostia, Ondarroa, Zarautz, Orio... Jai Batzordeak esker bereziak helarazi nahi dizkie festa haue- tarako berreskuratu duten hitzordua antolatzen lagundu duen Orio Arraun Elkarteko kideei.

Erria estropaden lekuko izan zen azken urtean, 2015ean Urola Kostako bi talde nagusitu ziren; Orio emakumezkoen trainerilla txapelketan, Zarautz gizonen lehiaketa. Denak onena ematera irtengo dira orain- goan. Nortzuk irabaziko ote dute bandera preziatua?

Nagore Arruti arraunlaria: “Hau izan da nire azken urtea”

Nagore Arruti usurbildarrek urteak daramatza arraunean. Euskotren ligan aritu da aurtan, eta duela ia hilabete Kontxako Bandera ere jokatu zuen Donostiarrarekin. Arrauneko ibilbidea amaitutzat eman du aurtengoarekin, baina beti arraunari lotuta egongo dela aitortu dio NOAUA!ri.

NOAUA! Donostiako Bandera jokatu berri da. Gustura aurtengo jardunaldiarekin?

Nagore Arruti: Kontxako Bandararen lehen asteburuan estropada oso txarra egin genuen, lehen kalea egokitu zitzaigun eta zazpigarren egin genuen. Bigarren asteburuan ongi joan zitzaigun. Hor ikusten da itsasoa itsasoa dela eta kaleek ere eragin zuzena dutela estropada ona edo txarra egiterakoan. Pozik nago orokorrean. Bigarren asteburuan hirugarren egin genuen Arraun Lagunak aurretik. Hondarribiak aurre hartu zigun, baina tira. Saillapen orokorrean postu batzuk igo genituen eta gustura.

Nola joan da aurtengo denboraldia?

N.A.: Gogorra eta luzea izan da. Uda da beti bezala, baina egia



Pozik dago denboraldiarekin. “Datorren urtean berriz ere Euskotren Ligan izango da Donostiarra, beraz helburua beteta dago”. Artxiboko irudia.

NAGORE ARRUTI

“Gogorra izan da denboraldia. EuskoTren ligak hori dauka, 7 astetan 14 estropada jokatzeko dira”

da astebururo bi estropada edukitzera ez geundela ohituta. Euskotrenek horixe dauka; ekainean hasi eta Zarauzko estropadarekin amaitzen da. Hilabete eta erdi, 6 edo 7 as-

tetan 14 estropada izaten dira. Desberdina da astero estropada bat edo bi izatea. Bagenekien zer zetorkigun. Donostiarra oso traineru gaztea da, duela hiru urte atera ginen lehen aldiz uretara. Lortu genuen talde bat osatu eta itxurazko zerbait egitea, azkenean. Bigarren urtean, lehen aldiz ET Liga irabazi genuen eta mailaz igo ginen Euskotren Ligara. Aurtengoan, beraz, maila mantentzea zen helburua eta ahal genuen neurrian goiko postuei begira

jartzea. Momentu batzuetan Hondarribiarekin borrokan aritu gara, baina mantentzea lortu dugu. Arraun Lagunak bigarren postuagatik borrokan ere ibili ginen estropadaren batean, eta horrek gora begiratzeko aukera ematen du. Horrelakoetan konturatu ginen nola horrenbesteko alderik ere ez dagoen gure eta lehen postuetako traineru horien artean. Oriok urteak daramatza Euskotren Ligan eta Arraun Lagunak traineru gaztea da, bost bat urte ditu eta gauza asko lortu ditu urte hauetan. Orduan, aukerak ikusten genituen zerbait txukuna egiteko. Hondarribiarekiko hobeto ikusten ginen aurreko denboralditik, baina sekula ez da jakiten fitxaketak direla eta ez direla. Datorren urtean berriz ere Euskotrenen izango gara eta helburua beteta dago.

Zein da zure estropadarik gustokoena?

N.A.: Euskotrenen egonda Zarauzko estropada jokatzeko izan da aipagarriena. Ni arraunean Getaria/Zarauz traineruan hasi nintzen, Getarian. Inguru horretan jokatzeko dugunean, etxekoa bezala sentitzen naiz. Donostian bertan jokatzeko ere polita da.

“Neska gazteek arrauna aukera bezala ikusten dute orain”

NOAUA! Emakumeen kirolak geroz eta oihartzun handiagoa du. Horrela bizi duzu zuk ere?

Nagore Arruti: Niri pozgarria egiten zait oso noraino iritsi garen ikustea. Nik ez daramatzat horrenbeste urte arraunean, baina urte hauetan aldaketak ikusi ditut. Ni hasi nintzenean, Gipuzkoako Liga bat zegoen eta Eusko-

tren ere bazegoen, baina Euskotreneko traineruak Gipuzkoan ere aritzen ziren... arraroa zen. Duela hiru bat urte arraunlariok mugitzen hasi ginen liga bakar bat egiteko edo bi mailatako txapelketak sortzeko, mutilek bezala. Orduan sortu zen ET Liga, klubak pixka bat mugitzen hasi zirenean.

Euskotrenen lau talde daude, baina ET joan zen urtean 8-9 talde ginen, aurtan 11. Kontxako sailkatze estropadan 23 emakumezko traineru... Lehen sailkatutik azkenekora aldea dago, baina mutiletan ere bai. Polita da urte batzuk daramatzagun arraunlariak ikustea, baina neska gazteek ere arrauna aukera bezala

ikusten dute. Kiroletako betiko borroka horretan, beti esaten digute emakume eta gizonen kirolak daudela. Ni lehen Usurbilen futboleko aritzen nintzen, eta behin utzita arraunean hasi nintzen. Beti nolabait “mutilen kiroletan”. Pozgarria egiten zait zentzu horretan aldaketa horiek ikustea.

“Arraunari lotuta biziko naiz beti. Orain utzi bai, baina ateak itxi ezeri ez”

NOAUA! Nondik datorkizu arraunerako grina?

Nagore Arruti: Mutil lagunagatik. Betidanik gustatu izan zait Kontxako estropada ikustera joatea, eta gero parrandan geratzea. Mutil laguna Zarautzen ibiltzen da arraunean aspalditik. Futbolean lesionatu nintzen duela urte batzuk eta utzi egin nuen. Orduan urtebete pasatu nuen estropadak ikusten eta garai hartan Zarauzko arraun taldeak emakume taldea atera zuen eta aukera ematen zuen probatu nahi zutenek aukera hori izan zezaten. Bertan probatu nuen eta gustatu zitzaidan esperientzia eta talde bila hasi behar nuela esan nion mutil lagunari. Kirol gogorra da. Jendeak udan bakarrik ikusten gaitu, baina azaroan hasten gara entrenatzen. Neguko lana ez da ikusten eta badirudi udako estropadak eta Kontxa besterik ez dela. Asko lotzen zaituen kirola da; ordu asko entrenatu behar da, ezin zara parrandan atera, pisua zaindu behar da... Gauza asko ditu zentzu horretan. Behin, ordea, traineruan sartuta sentitzen dudan sentsazio horregatik merezi du.

Arraunlari izateak egunero entrenatzea eskatzen du. Lana eta arrauna uztartzeko arazorik izan duzu?

N.A.: Nik zentzu horretan zortea dut irakaslea naiz eta. Ez dut arazorik izaten udan, nire opor guztiak arraunerako gordetzen ditut. Nire taldekide guztiek liga bukatu bezain pronto oporretara alde egiten dute, eta ni, berriz, lanean hasten naiz. Oporrik gabe daramatzat 5 urte. Udan aste-buruak beti libre izaten ditut, beraz ez dut inolako arazorik izaten. Zaila egiten da oposaketetarako ikasi, lanera joan



“Neguko lana ez da ikusten eta badirudi udako estropadak eta Kontxa besterik ez dela. Asko lotzen zaituen kirola da”.

NAGORE ARRUTI

“Orain kanpotik jarraituko dut arrauna Zarautz animatuz. Donostiarra ere beti animatuko dut, baina nire mutil laguna non nik talde hori animatuko dut”

eta egunero bi ordu entrenatu beharra. Orokorrean entrenamenduak 7ak aldera egiten dira eta ordurako gehienak lanetik aterata egoten gara.

Urte luzez gehiago jarraitzeko asmoa duzu?

N.A.: Hau izan da nire azken urtea. Bost urte egin ditut, baina 30ekin hasi nintzen. Ez da berdina 20 urterekin hasi dena eta nire egoera. Printzipioz azkena izan da. Hamar-hamabi urte gazteagoekin aritu naiz eta ergometroan ari nintzela

behin konturatu nintzen nire alboan zeuden bien adinak gehituta ni baino gutxiago zizutela. Desberdina da adin batean edo bestean kirolean aritzea. Aurten Euskotren Liga bizi nahi nuen eta helburu hori lortu dut. Ez dakit sekula itzuliko ote naizen, inoiz ez da jakiten hori. Taldean izan nuen 40 urte baino zaharragoko bat, haurrak hazita zituena eta gaztetan arraunean aritutakoa. Gizonezkoetan ere bada ia 60 urteko bat play off-a jokatu duena. Arraunak badu zer-bait eta nola nahi edo ez nahi arraunari lotuta biziko naizen beti, orain utzi bai, baina ateak itxi ezeri ez. Orain kanpotik jarraituko dut arrauna Zarautz animatuz, Donostiarra ere beti animatuko dut, baina nire mutil laguna non nik talde hori animatuko dut. Zarautzen hasi nintzen ni ere, eta nire etxea huraxe sentitzen dut.

EuskoTren ligako neskak eta Euskolabel ligako mutilak Aginagako Trainerilla Txapelketan

Urriak 12 larunbata

■ 15:30 Trainerilla estropadak errioko: Gizonezkoen X. eta Emakumezkoen IV. ikurrinak. Euskotren ligako neskak eta Euskolabel ligako mutilak izango dira hurrenez hurren, etxeko trainerila anfitrioi delarik.



Urriaren 12an jokatu da.

Sagarrondoek sekretuak argitzen

Goiz pasa oso polita egin dugu Agiñako erriberan. Hitzok irakurri genituen pasa den igande eguerdian sare sozialetan. Jakoba Errekondoren azalpenekin eta Maialen Lujanbio zein Andoni Egañaren bertsoen bitartez “sagarrondoek sekretuak berri izan dugu. Umorerik ere ez da falta izan”. Ibilaldiaren ondoren, Aginaga sagardotegian egin zuten hamaiketakoa.

Urriaren 14tik 20ra, sagardoari buruzko jardunaldiak

Sagardoaren kulturaz gozatzeko hitzordu gehiago izango dugu estreinatu berri dugun udazken honetan. Euskal sagardoaren sustapen astea iragarria dago urriaren 14tik 20ra. Sagar eta sagardo dastatzeak, bestelako produktuekin maridajeak, afari gidatuak, sagardotarako baliatzen diren sagarren inguruko erakusketa,... izango dira datorren hilean Usurbilen.



Ibilaldiaren ondoren hamaiketakoa egin zuten Aginaga sagardotegian. Argazkia: @Aginatik_

JARDUNALDIAK

“Sagar eta sagardo dastatzeak, afari gidatuak, sagardotarako sagarren erakusketa,... Ekitaldi ugari egingo dira urrian Usurbilen”

“Usurbil, sagarraren bihotza”

Sustapen aste hau, “Usurbil, sagarraren bihotza, sagardoaren kultura” egitasmoaren testuinguruan ospatuko da. Duela urtebete aurkeztu zuten proiektu honek, marka berri bat baino gehiago izan nahi du; orain arte eremu honetan

herrian egin den lana, sektoreko eragile eta ekintza solteak josi, bateratu, eragileak bateratu, koordinatu eta indarberritzera dator. Hainbat eragile bildu zituen proiektuak. Sektore honetako dinamikari lotutako urte osoko eskaintza bateratu nahi da.

Aurten ez da eskulan erakusketarik egingo

Josketa lanak, margolanak eta bestelako eskulanak ikusgai jarri izan dituzte aurreko urteetan Aginagako jaietan. Aginagarrek Arrateren bueltan eginiko sortze lanen bilduma ordea aurten ez dute ikusgai jarriko. Apaiz etxean antolatu ohi dute erakusketa, baina eraikina berritze lanetan dute aurten, eta ezingo dute baliatu tradizio luzea duen hitzordu honetarako.



Apaiz etxea berritze lanetan denez, ezin izan dute erakusketarik antolatu.

ARRATE EGOITZA

JALETAKO MENUA:
ENSALADA MIXTA
PIKATOI ERREA
POSTREA ETA EDARIA
erreserba ezazu!

20€

**FESTETAN ERE...
OGITARTEKOAK ETA HANBURGESAK!!!**

URTE OSOAN ZEHAR:
-EGUNeko MENUA (ASTELEHENETIK OSTIRALERA)
-KARTA ASTEBURUETAN -OGITARTEKOAK

AGINAGA 692 89 84 92

Ondo pasa
San Praixkuetan!



KARABANAK
Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

NAUTIKA
Salmenta, konponketak eta mantenua
24 orduz hibernatzeko zerbitzua
Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660
www.noraianautika.com - info@noraianautika.com

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City * Potxoenea
- * Sutege liburutegia
- * Zubietako Almandegi taberna * Aginagako Arrate egoitzan

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik/

tren eta autobus

ordutegia 19/20

noaua

Otordurik ez da falta jai egitarauan

Jaietako otordueta-
txartelak aurrez eskuratu
beharko dira. Hemen di-
tuzue xehetasunak:

Urriak 5 larunbata, herri afaria frontoian

- 21:30 Herri afaria frontoian.
- Helduenak 25 eurotan eta haurrenak 12 eurotan.
- Sarrerak Arraten irailaren 29ra arte salgai.
- Oharra: sarrerak agortuko ez balira, egunean bertan 30 eurotan salgai.

Urriak 11 ostirala, gazte afaria Aginaga sagardotegian

- 21:00 Gazte afaria Aginaga sagardotegian.
- 25 eurotan salgai.
- Sarrerak urriaren 6ra arte Aitzagan eta Arraten.



Jubilatuen hamaiketako urriaren 4an egingo da, Aginaga sagardotegian, bertsolariek alaitua.



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 atxega@atxega.com www.atxega.com



VDA. E HIJOS DE
**JERONIMO
IZAGUIRRE** S.L.



Ondo pasa
jaietan!



943 362 146 AGINAGA
www.mariscosizaguirre.com



Angulas Mayoz s.l

AGINAGAKO ANGULAK
BEREZKO BIBEROAK

Ondo pasa
San Praixkutan!



TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94

Aginagako festak, egunez egun

Urriak 3, osteguna:

San Praixku bezpera

■ 19:00 XVIII. Gizonezkoen ligaxkako pilota finala eta emakume pilotarien erakustaldia.

Urriak 4, ostirala:

San Praixku Eguna

■ 11:00 Meza nagusia.

■ 12:00 Jubilatuen hamaiketako Aginaga sagardotegian, bertsolariek alaitua.

■ 18:00 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian pregoi eta brindisarekin; txanpaina gure kontu!

■ 18:30 Aginagako herritarren arteko erronka.

■ 19:30 Sardina eta sagardo dastaketa Ane Azkonobieta eta Manex Torrealdei trikitilariak alaitua.

■ Bitartean, XXXVII. toka txapelketa herrikoia eta buruhandi bizkor-bizkorrak!

Urriak 5, larunbata:

Oilasko Biltzaileen

Eguna

■ 5:30 Oilasko biltzaileen gosaria.

■ 6:00 Indarrak hartu ondoren, oilasko biltzaileen irteera Atarialde Elkartetik.

■ 11:00 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildik.

■ 18:00 Gazte eta helduentzako karaokea!

■ 19:30 Herri poteoa.

■ 21:00 Herri afari bikaina. Sarrerak Arraten salgai irailaren 29ra arte: 25 euro helduenak eta haurrenak 12 euro.

■ 23:30 Erromeria frontoian: Oharkabe.

■ 02:30 Euskal rumba Eliza Zaharrean: Kilimak.

■ Ondoren: DJ Jotatxo.

Urriak 6, igandea:

Gora Herria Eguna

■ 9:00 Tiro platoa.

■ 16:00 XXXVIII. Mus txapelketa Eliza Zaharrean (izen



San Praixku egunean, buruhandiak ibiliko dira gaztetxoekin xextran.

AGINAGA

***“Txupinazoa urriaren
4an piztuko dute.
Arratsaldeko 18:00etan,
Eliza Zaharreko balkoian”***

ematea, 15:30-16:00 artean).

■ 16:00 Partxis lehiaketa haurrentzat ludotekan.

■ 18:30 Globo aerostatikoan igoerak egiteko aukera izango da Atarialde Elkartetik ondoko zelaian. Aaalaalaaa...

■ 19:00 Piper frijitu eta sagardo banaketa herriko plazan.

Urriak 11, ostirala:

Umeen Eguna

■ 10:00 Umeen jokoen hasiera.

■ 13:00 Umeen bazkari goxogoxoa karpan, mmm...

■ 16:00 Puzgarriak.

■ 18:00 Txokolate banaketa eta buruhandi bizkor-bizkorrak!

■ 19:00 Herriko jubilatuen eskutik opari jaurtiketa haurrei,

Arratetik plazara, iepa iepa!

■ 19:30 Patata tortila txapelketa.

■ 20:00 Zezen suzkoa plazan zehar; egin ihes txikito, erreko hau!

■ Ondoren, herri poteoa.

■ 21:00 Gazte afaria Aginaga Sagardotegian. Sarrerak 25 eurotan urriaren 6ra arte salgai Usurbilgo Aitzagan eta Arraten.

■ 23:00 Txosna irekiera.

■ 23:30 Kontzertuak Eliza Zaharrean: Rukula eta Andoni Bakarlarria.

■ Ondoren, DJ Seymar.

Urriak 12, larunbata:

Gaupasa Eguna

■ 12:00 Serigrafia tailerra, “Zatzaizkit”-eko Beñat Iraolaren eskutik.

■ 13:00 II.Tiratxinas jaurtiketa txapelketa.

■ 15:30 Trainerila estropadak erriean: Gizonezkoen X. eta Emakumezkoen IV. ikurrinak. Euskotren Ligako neskak eta

Euskolabel Ligako mutilak izango dira hurrenez hurren, etxeko trainerila anfitrioi delarik!

■ 18:00 Eriz Magoaren “Auska-lo” saioa.

■ 19:00 Elektrotzaranga plazan zehar: Elektropapo.

■ 23:30 Kontzertuak frontoian: Liher eta Enkore.

■ Ondoren, erromeria: Larrian Gozo.

■ 04:00 DJak Eliza Zaharrean eta karpan.

■ 07:30 Errefus-bilketa!

Oharrak:

■ Aginagako Jai Batzordea ez da arduratzen egun hauetan gerta daitezkeen ezbeharrez.

■ Usurbilgo Udalak babesturiko festak direnez, ardura zibilaren aseguru poliza ere Udalak bereganatzen du.

■ Eskerrik asko Orioko Arraun Elkarteari, estropaden antolaketan laguntzeagatik.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.



aginaga

San Praixku zoriontsuak opa dizkizuegu!!!

Sagardotegia



**URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA TXOTXETIK!**

Bereztasuna; Sagardotegiko menua
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrainekin.
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...
Ezkontzetarako jangela egokitua.
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

HOTEL BERRIA AGINAGAN

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:
aire girotu eta berogailua, TV, WiFi, bainugela
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarri (geotermia) baliatzen
da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.
lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi
duenarentzat **leku ezinhobe**a.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

Hotela * *



José María Larburu
Garraiatzailea



LARBURU

gruarekin ere egiten dugu lan

Garraioak

Larzusta z/g. AGINAGA



943 36 17 35 • 651 703 237



Santueneko jaiei buruzko argazki gehiago topatuko dituzue noaua.eus atarian.

Asier Azpiroz bigarren izan zen Ordiziako bertso saioan

Beñat Lizaso nagusitu zen Ordiziako saioan eta urriaren 20an Irunen jokatu den final-laurdenean kantatu du. Asier Azpiroz bigarren izan zen baina hurrengo fasera pasako den ala ez jakiteko itxaron egin behar du.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetan 42 bertsolari ari dira lehiatzen. Sei bertsolariz osatutako zazpi talde, zehatzago esanda. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasako da hurrengo fasera eta horiekin batera pasako dira puntu gehien batzen dituzten beste hamazazpi bertsolari. Hortaz, final-zortzirenetako sailkapen fasea amaitu arte ez



Beñat Lizasok pilatu zituen puntu gehien. Irudia: bertsozale.eus

ASIER AZPIROZ
"Final-laurdenetara
igarotzeko aukerak ditu
oraindik"

dugu jakingo Asier Azpirozek aurrera egingo duen ala ez.

Ordiziako puntuazioa

Beñat Lizaso Alberdi 445
 Asier Azpiroz Iztueta 423
 Ane Zuazubiskar Iñarra 416,5
 Manex Mujika Amunarriz 416
 Aitor Urbietza Aizpurua 402,5
 Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo 397

Urriaren 11n, Mintzapraktika egitasmoaren aurkezpena

Euskara ahotan hartzeko espazio edo lagun arte bila bazabiltza, Etumeta AEK euskaltegiak, NOAUA! K.E.-k eta Usurbilgo Udalak sustaturiko mintzapraktika duzu egitasmoa proposa.

"Euskara praktikatu nahi baduzu eta ez badakizu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera be-

rien bila bazabiltza, hainbat proposamen ditugu: mintzlagun taldeak, gurasolagunak, tailerrak, txangoak...". 2010az geroztik Usurbilen Mintzlagun egitasmoa sustatzen da biltza euskaltegia, Udala eta NOAUA! K.E. Bidelari eta bidelagunak behar izaten ditu ekimen honek; euskara ikasten aritu edo maila hobetzen ari direnen eta euskara baliatzen

jakinik, mintzapraktikan aritu nahi dutenena.

Etumeta AEK euskaltegian egingo da aurkezpen ekitaldia

Egitasmo hau jendaurrean aurkeztuko dute bilera ireki bidez, datorren urriaren 11n, arratsaldeko 17:30ean Etumeta AEK euskaltegian. Euskaltzale guztiok gonbidatuak gaude hitzordura.

Urriaren 2an, Irakurketa dialogikoa Sutegi udal liburutegian

"Beste behin ere, irakurketa dialogikoko saio bat izango dugu Liburutegian. Esku artean izango dugun liburua... auskalo!". Ana Merino usurbildarrak gidatuko duen saioan, Merinok momentuan irakurritako ipuin batzuk komentatu dira.

Literatura topaketa

Urriaren 2an 19:00etan Sutegi udal liburutegian. Literatura topaketa hau erdaraz izango da.



Ana Merinok gidatuko du saioa.

Energiaren inguruko hitzaldiak

Bi saio antolatu dira urrian. Lehenengoa hilaren 4an 19:00etan Potxoenean. "Petrolioaren gailurra eta bere ondorioak" hizpide izango ditu Antonio Aretxabala geologoak.

Urriaren 18an, "toki-esperientziak energian: Zubietta eta Ispaster proiektuak. Energia Berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatibak" saioa iragarri dute.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!
ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA
943 36 10 79

Patxi
 Patxi
 bazkariak EGUNERO
 afariak. ostegunetik larunbatera
 943 362725 · 688 690 361


EROSKI/city
 kale Nagusia 10, USURBIL
 943 361182

Erraustegiaren inguruko ikerketarekin baikor da Zubieta Lantzen

Nola egongo gara lasai? galdetzen zuen Zubieta Lantzenek, erraustegiaren kutsagaien inguruan abiatzeaz zuten azterlan zientifiko independentea aurkezteko hilabete hasieran errebote plazan egin zuten agerraldian.

Zubietara datorkienak eragiten dien kezka eta lasaitasun falta horren aurrean autofeintsak ekimen gisa aurkeztu zuten herri gainean piztear dieten erraustegiaren inguruko azterlana. Ikerlanaz, datorkienaz aritzeko zubietarrekin bildu nahi izan zuen joan den irailaren 20ean Zubieta Lantzenek. Argi zioten, “etorkizuneko prestatu beharra dugu”.

Zubietaren defentsan

2007an sortu zuten bilgunea, Zubietan kultur eta kirol jarduerak sustatzeko, herri bizitza bultzatzeko aldera. Baina beste xede batekin baita, aurreko asteko Kaxkapeko bilkuran gogorarazi zuten; ingurumenaren eta “Zubietaren defentsarako” sortu zuten baita Zubieta Lantzen. Ordurako Zubieta erraustegiaren mehatxupean zen.

Urte batzuetan kirol edota



Irailaren 20an Kaxkapen batu ziren ikerlanaz eta finantziarioz hitz egiteko.

kultur jardueretan murgilduak egon ostean, nolabait esatearren, herrigintzaren lehen lerrora itzuli da herri elkarteak, erraustegiaren kutsagaiak neurtzeko ikerketarekin. Gipuzkoako Erraustetaren Aurkako Mugimenduaren baitan txertatua dago gainera bilgunea. Mugimenduaren erabaki eta dinamiketan parte hartu, informazioa gizarteratu eta ekintzak antolatzen dihardute.

Erraustegiaren “kontrol ez gubernamentalak”

Asteotan eman duten urrats hau, erraustegiaren inguruko ikerketaren nondik norakoak azaldu nahi izan zizkieten zubietarrei Kaxkapeko herri bileran. Erraustetaren Aurkako

Mugimenduaren helburu nagusiari uko egin gabe, “erraustegia ez piztea, edo pizten badute segituan geldiaraztea”, Zubieta Lantzenek gai honen inguruko beste ertz bati heldu nahi izan dio egitasmo honekin. Gipuzkoako Foru Aldundia legeaz erraustegiaren inguruko jarraipen plan bat egitera, besteak beste, tximiniatik isuriko denak ingurumenaren eta ingurukoengan eraginik izango ez duela bermatzeko plan bat garatzera behartua dago. “Guk dakigula ez dute laginik hartu, erraustegia martxan jartzerako doazela esaten ari direnean”, Zubieta Lantzeneko ordezkariak azpimarratzen dutenez.

Erakundeek egin ez duten hori egitea erabaki du aipatu

elkarte zubietarrek; “gure gain hartzea ikerketa”. Helburu argi batekin, “erraustegiak kutsatuko duen horren jakitun izateko”. Erraustegiaren “kontrol ez gubernamentalak emango da”.

Borrokarako tresna berria

Eusko Jaurlaritzak akreditaturiko bertako enpresa bat (metal astunen jarraipena egingo du) eta Holandako Toxicowatch fundazio prestigioitsua (dioxinak ikertzen espezializatuak) kontratatu dituzte. Berriki erraustegiaren bueltan diren herrietan laginak hartzen aritu ziren Toxicowatch-eko bi zientzialari holandar. Oiloak, arrautzak, landaredia ikertzen aritu dira. “Arrautzen bidez neurtuko da dioxina eta furanoen maila”, Zubieta Lantzenen esanetan. Hain zuzen, ohartarazten dutenez, erraustegiek isuritako kutsagaiak lurrera isurtzen dira. “Lurrean pilatzen doaz, ez dira desagertzen”.

Ikerketan parte hartzeko zubietarren prestasuna ezin hobea izan dela azpimarratu zuten Kaxkapen, eta jendartearen aldetik ikerketa bera positiboki baloratu dela. “Jende guztiak eskuzabalik hartu gaitu”, ikerketarako oilategiak eskainiz.

Laguntza emateko deia

Asteotan egindako datu bilketa eta horrekin erredaktatutako txostenak eragindako gastu handia ordaintzeko laguntza bilketa kanpaina abiarazi du Zubieta Lantzenek eta Erraustetaren Aurkako Mugimenduak ere crowdfunding kanpaina abiatuko du egunotan. “Norbanako zein eragileek eman ahalko dute laguntza”, iragarri du Zubieta Lantzenek.

Elkarteak ateak zabalik ditu

partaide berrientzat.

Erraustegiaren inguruko ikerketa, hurrengo urratsak

- Lehen lagin bilketa egin da.
- Datu bilketarekin, argitara emango den txosten bat erredaktatuko da.
- Gaurko, zehazteko dago noiz egingo den hurrengo lagin bilketa.

Laguntza bilketa

Zubieta Lantzenek abiarazi-

tako ikerketarako Euskal Herriko enpresa bat eta Holandako fundazio bat kontratatu ditu. Ikerketaren gastuei aurre egiteko laguntza bilketa kanpaina iragarri du. Herritar nahiz eragileak ekarpenak egitera animatzen dituzte, ezinbestekoa izango baita ikerketarekin aurrera jarraitzeko. Hemen laguntzeko bideak:

- Erraustetaren Aurkako Mugimenduak crowdfunding kanpaina abiatuko du Internet

bidez laster.

- Zubieta Lantzen elkartearen kontu zenbakia:

ES45 2095 5069 06 1064132086

- Laguntza biltzeko mahaia jarriko du Zubieta Lantzenek Zubietako plazan (Eliza inguruan):

Irailak 26, osteguna:

17:00-18:30.

Urriak 5, larunbata.

Oharra: hauek oraingoz zehaztuak dauden lehen hitzorduak.

Idoia Torregarai: “Lan pixka bat emango diegu marrazkilariei”

Larunbat honetan egingo dute Harria Hitz bisita gidatu berezia. Dzirt-Dzart izenez deitu diote aste-buru honetako ekimenari, izan ere Joseba Larratxe eta Antton Olariaga komikigileen sormena eta marrazkilaritzarako berezko hori ezinbesteko osagaiak izango dira. Idoia Torregarai usurbildarra arduratuko da gai jartzaile lanak egiteaz, eta haren esanetara margotu beharko dute bi artistek. Idoia Torregararekin izan da NOAUA! Harria Hitz bereziaren xehetasunak biltzeko.

NOAUA! Harria hitz bisita gidatuaren baitan eskainiko duzuen ikuskizuna nolakoa izango da?

Idoia Torregarai: Joseba Larratxe eta Antton Olariaga izango dira marrazkilariak eta nik aurkezle eta gidari lanak egingo ditut. Ordubeteko saioa izango da, eta bertan saiatuko gara bi artista horiei ariketa bat proposatzen, jendearen aurrean marraztuko. Saiatuko gara pixka bat jolasten ariketa desberdinekin, nik proposatutako gaiak aurrera eraman beharko dituzte banaka eta binaka marraztuta. Denetatik egingo dugu: bat hasi eta besteak jarraitu marrazkia eta txandaka panel oso marraz-



Larunbat honetan, Harria hitz bisita gidatua. Idoia Torregarairen “esanetara” arituko dira Joseba Larratxe eta Antton Olariaga marrazkilariak. Argazkia: unibertsitatea.net

IDOIA TORREGARAI

“Izaera oso ezberdinak dituzte: Antton lotsagabeagoa da, Joseba isilagoa. Bien arteko joko horrek saio polit bat ekarriko duela iruditzen zait”

tu beharko dute, aurrez aurreko bat ere egongo da biak batera marraztuz baina elkarren lanak ikusi gabe, txandakako bizkor bat... Sorpresak egongo dira. Izerdi pixka bat bota dezaten saiatuko gara. Adituak dira marrazketan eta lan pixka bat emango diegu. Saio umoretsu bat proposatuko dugu, giro

goxo eta atsegin batean kokatuta. Harria Hitz bisita gidatuaren ondotik egingo dugu saioa, eta hasieran aurkezle eta gidari lanak egingo baditut ere, gaiak libreago izango dira gero. Jendeak ikus dezan komikilari baten magia nolakoa den.

Beteranoa eta gaztea

Bi marrazkilariak ezagunak dituzu. Hori zein neurritan da lagungarri eta zein neurritan kaltegarri?

I.T: Kasu honetan lagungarria baino ez [kar kar kar]. Alde batetik Antton aspalditik ezagutzen dut, Jagobaren Altza Porru lanaren harira ezagutu genuen. Nik banekien Usurbilen jaioa

zela, bere lana jarraitzen dudalako Berrian eta. Zakilixuten 40. urteurrenean omenaldi bat egin zioten Berrian eta parte hartzeko aukera izan nuen bertan, eta hor gehiago elkar eza-gutzeko aukera izan genuen. Izugarrizko genioa iruditzen zait, oso pertsona argia eta dibertigarria. Oso komikilari eta marrazkilari ona da. Niretzat ohore bat da horrelako ekimen baterako aurkezle eta gidari lanetan ibiltzeko aukeratua izatea, eta horrelako “ganberradetan” berarekin parte hartzeko aukera izatea. Joseba ere bada denbora ezagutzen dudala.

Usurbilen elkar aurkitu aurretik sare sozialen bidez ezagutzen ginen eta gerora, Usurbilen bizi zela jakin nuenean eta Kabiennen parte hartu zuela lotura estuagoa egin genuen eta bere lana jarraitzen dut duela urte batzuetatik baita ere. Bere lana nola zabaltzen joan den ikusi dut, Argia eta Larruneko azaletan, liburuetan eta kolaborazio lanetan eta niretzat hori zoragarria da. Horrelako pertsona zoragarri eta buruargi bat gertutik ezagutzeko aukera izatea plazer bat da. Bere gaztetasunak erakusten du oraindik izugarriko bidea duela egiteko.

“Joan den urtetik ametsa egia bihurtzen ari da”

Umorearen gainean aritu da Idoia Torregarai, betidanik gustoko izan duen esparrua izan da. “Bakean dagoenari Bakean utzi” umore ikuskizuna herri herri eramaten ari da Mirari Martiarenarekin batera.

NOAUA! Emanaldi asko eskaini dituzue azken hilabetetan. Gehiago egiteko asmoa duzue? Epe erdira, ikuskizun berri batean ari al zarete

pentsatzen?

Idoia Torregarai: Asteburu honetan bertan Itsasondan eta Ataunen izango gara. Azaroa ere nahiko beteta dator. Zorionez bide hau betidanik egin nahi izan dut, umorea zuzenean egiteko aukera izatea nire ametsa izan da beti. Joan den urtetik ametsa egia bihurtzen ari da. Jada 100 saio baino gehiago egin ditugu eta benetan zoragarria da jendearen aurrean jarri eta

jendeari barre eginaraztea. Gogorra ere bada; jendeak ez badu barre egiten ez duzu azterketa gaintzen. Oso ongi funtzionatzen ari da eta Mirarirekin daukadan harremana ere oso ona da. Benetan gozatzen ari naiz formatu honetan, aurrez aurrekoan, jendearen gertutasunarekin. Zeinek esan behar zidan hona iritsiko nintzela. Bigarren zati bat egitea ere pentsatzen ari gara. 2020an edo hari honeta-

tik tiraka, euskara, generoa eta umorea ardatz hartuta gai berri batzuk sartuta zerbait egiteko asmoa dugu. Jendeak proposamen asko egiten dizkigu eta lanean jarraituko dugu zerbait berria eskaintzeko. Memento zati honekin gus-tura ari gara, Euskal Herria handia da eta herri guztietatik pasatu nahiko genuke, baina bai egia da bigarren zati hori buruan daukagula.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etzeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berriua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebi-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

zitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbil erdikaldean, 2 logelako pisu bat alokatzen dut. Tel. 685 720 124.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrir bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatzeko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak.

688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke.

653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera.

Usurbilgo neska baten bila gabiltza orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrek emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak dei-

tu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko ku-deatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesional-tasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrek emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrek emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegi, info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interno, egunez edo orduka. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Interna, egunez edo orduka. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etzeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordurako lan baten bila nabil



Zorionak Libe! Larunbat honetan 12 urte beteko dituzu. Ondo pasa zure egunean eta muxu potolo bat.

arratsaldeetarako, garbiketa lanak, haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziekin. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala lanean hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen nes-

ka bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Asteaz 2 egunez, goizez edo arratsaldeaz. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen,

umeak zaintzen edo garbiketari. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo

nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637106649.

BESTELAKOAK

Andatzpe elkarteko bazkide naiz, plaza saldu nahiko nuke. Interes duenak deitu: 699 421 238 Iñigo.

AEG markako 8 kiloko lehorgailua salgai. Oso gutxi erabilia. 616 273 785.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesezko arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko tolo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestatuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iñigo Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 26	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 27	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 28	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 29	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 30	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteartea 01	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Asteazkena 02	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

Irailak 26 - Urriak 6

Osteguna 03	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
Ostirala 04	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata 05	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 06	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila

27 ostirala

- **Hitzaldia:** "sexologia oinarriak". 18:00etan Santuenea elkartearen. Hizlaria: Jon Etxabe Telleria sexologo-psikologoa.
- **"Atzo eta gaurko gudariak" ekitaldia** Mikel Laboa plazan. 19:00etan hasita.
- **Iñorkiñak Patrin.** Iluntzean.

28 larunbata

- **Kantu jira.** 12:30ean Mikel Laboa plazatik.
- **Harria Hitz bisita gidatua.** 10:00etan batuko dira Usurbilgo frontoian. 11:15 Dzirt-Dzart saioa.
- **Jubenilen futbol partida** Haranen. 16:00etan, Usurbil FT-Orioko.

29 igandea

Harria Hitz bisita gidatua osatzeko aukera berri bat

Larunbat honetako *Harria hitz* ibilbide gidatua osatzen dutenek, *Dzirt-Dzart* saioaz gozatzeko aukera izango dute. "Izenak berak dioten bezala, bat-batean marrazteko saioa da", Ereiten Kultur Zerbitzuetatik adierazi digutenez. "Joseba Larratxe eta Antton Olariaga marrazkilariak eta Idoia Torregarai aurkezlea izango dira protagonistak".

Irailak 28, larunbata

- 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 10:05 Harria Hitz bisita gidatua herri-gunean.
- 11:15 Dzirt-Dzart saioa Joseba Larratxe, Antton Olariaga eta Idoia Torregarairekin.



Larunbat honetan, goizeko 10:00etan abiatuko dira frontoitik.

- Azalpenak euskaraz emango dira.
- Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 / info@kultour.pro
- Bisita doakoa izango da. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da (25 lagun, gehienez).

Iñorkiñak-en disko berriaren aurkezpena

Iñorkiñak taldeak lehen diskoa aurkeztuko du ostiral honetan, Patriko terrazan. Mikel Alkorta (ahotsa, trikitixa), Luken Arkarazo (gitarra, ahotsa), Beñat Urteaga (baxua) eta Jokin Irastorza (bateria) laukoteak aditzera eman digunez, "sarrera irekia da, baina afaltzeko sarrerak amaituta daude. *Sold out*. Aurkezpena terrazan egiteko asmoa dugu, eguraldi ona bada".



Ostiral honetan, iluntze partean arituko da Patrin.

Datozenak

Sexologiari buruzko hitzaldiak Jon Etxaberen eskutik

Jon Etxabe Telleria sexologo-psikologoak eskainiko ditu, Santuenea Elkartearekin elkarlanean. Hiru saioetako lehena, irailaren 27an 18:00etan auzo elkarteko egoitzan. "Sexologia oinarriak" hartuko ditu ahotan.



"0-6 urte arteko umeak ulertzen" Bihurri ludotekan

Bihurri ludotekak Sexu Aholkulartza Gunearekin batera, izenburu hau daraman solasaldia antolatu dute urriaren 8rako 17:30etan, ludotekan bertan. "0-6 adin tarteko umeen gurasoek, haurrek beren identitatearen garapenean bidelagun izateko, sortzen zaizkigun zalantzez aritzeko txokoa eskaini nahi da, Sexu Aholkulartza Guneak eskainitako solasaldi honetan".

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkagaitza

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil



EUSKARAZ PRAKTIKATU NAHI? LAGUN BERRIAK EGIN NAHI?



%100 PAPER BIRZIKLATUA



#PRAKTIKATUETABIZI
11 AUKERA EUSKARAZ PRAKTIKATU ETA DUTIZEN



USURBILGO Mintzalagun

Euskara praktikatu nahi baduzu, baina ez badaukazu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen daukagu zuretzat:

Mintzataldeak > Tailerrak > Txangoak

607 609 379 / 943 360 321

www.mintzalagun.blogspot.com

usurbil@aeek.eus

Mintzalagunak Gara | Facebook

Sustatzaileak



Usurbilgo Udala

aeek

Etumeta Euskaltegia

noqua

www.noqua.eus

praktikatu




USURBILEN

bizi eta erosi

BALIO HANDIA DAUKA
HERRIKO DENDA TXIKIETAN EROSTEAK!

ADI EGON

Erosketak Usurbilen egitea
aukeratzen duten familiak
sarituko ditugu.



ZURE FIDELTASUNAK

saria du

**Zozketarik
gabe!**

100* € ko
5 sari

*100€ko opari txartela USURBILgo
establezimenduetan erosteko.



Usurbilgo Udala



hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Gaitasunak Elkarteak